



**ALDEZ AURREKO KONTSULTA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAN BI HILERIK BEHINGO ZATIKAKO ORDAINKETA ARAUTZEKO FORU DEKRETU PROIEKTUAZ.**

29/2017 Foru Dekretuak (maiatzaren 23koa, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onesten dituena) bere I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia, azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onetsi nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, jakitearren zer iritzi duten egitekoa den xedapenak eragingo dien herritarrek eta ordezkariak erakundeei; xedapenak arau esparru berri bat ezarri nahi du, eragiketa lotuetarako balorazio proposamenekin zerikusia duten informazio betebeharrak direla-eta.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, urriaren 12ra arte, [aurrezkontsultak@araba.eus](mailto:aurrezkontsultak@araba.eus) helbide elektronikoko postontziaren bidez.

<b>AURREKARIAK</b>	Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren arautegia onesten duena.
<b>KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK</b>	Ordainketa zatikatuak egokitzea hainbat arau eta Arabako zerga sistemako tributuak aldatzearen martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauan eginiko aldaketetara.



<b>HURA ONARTZEKO PREMIA ETA AUKERA</b>	Beharrezkoa da araudia aplikatzeko eta beharrezkoa den koherentzia mantentzeko.
<b>XEDEAK</b>	<p>Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen foru arauak ezartzen du ezen ekonomia jarduerak egiten dituzten zergadunak behartuta daudela “zerga honen konturako ordainketa zatikatuak egitera, arauz ezartzen diren baldintzetan”.</p> <p>Ordainketa zatikatu horiek, martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak berriki sartutako aldaketaren arabera, bi hilerik behin, hiru hilerik behin edo sei hilerik behin egin daitezke, hori ere arauz ezarritakoaren arabera.</p> <p>Martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak sartutako berritasun hori da, orain arte indarrean egon den egoerarekin alderatuz, ordainketa zatikatua bi hilerik behin egin daitekeela.</p> <p>Oinarrizko arau hori betetzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko arautegia aldatzen da, zergapekoek bi hilerik behin egin ahal ditzaten ordainketa zatikatuak, hala egin nahi izanez gero. Horretarako, ordainketa zatikatuen oraingo araupetzea mantentzen da; hau da, hiru hilerik behin eta sei hilerik behin egiten direnak, eta araupetze hori bi hilerik behin ordaindu ahal izatera egokitzen da.</p>
<b>EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUTZAILEAK ETA ARAUTZAILEAK EZ DIRENAK)</b>	Azaldutako helburu horiek gauzatzeko aukerarik egokiena dela jotzen da.